

## KOSTUEN EGITURA

### • Zein dira zuen proiektuaren kosturik garrantzitsuenak?

Gure enpresak eskaintzen duen zerbitzuak ez ditu berezko kosturik izango, zerbitzu bat baita. Baina gure bulego propioa izango dugunez bertatik lan egin ahal izateko, horrek hainbat kostu eragingo dizkugu. Alde batetik, erabiliko ditugun baliabideak eta materialak (ordenagailuak, lokala eta haren gastuak, etab.) eta bestalde gure taldean bertan lan egiten dutenak, kasu garbitzaileak. Jarraian bereztuta azaltzen dira:

- Hasierako inbertsioak:
  - Ordenagailuak: 800€/unitateko
  - Telefonoak: 50€/unitateko
  - Mahaia: 50€/unitateko
  - Aulkiak: 30€/unitateko
  
- Kostu finkoak:
  - Lokala: 400€
  - Garbitzailearen soldata: **(lanaldi erdia)**
  - Gainerako langileen soldata:
    - Abokatuak
    - Psikologoak
    - Administrariak
  
- Kostu aldakorrek:
  - Ura
  - Argindarra
  - Internet-a
  
- Eskala-ekonomiak:
  - Gure enpresak izango dituen etekinak hil bakoitzean ez daude finkatuta, izan ere, kostuak eta irabaziak aldakorrek dira, hain zuzen ere, gure baliabideen kontsumo eta bezeroen ekarpenen arabekoak. Hala ere, irabaziak kostuak baino handiagoak izatea espero dugu, galerarik ez izateko.
  
- Hedapen-ekonomiak:
  - Gure enpresak eskainiko duen zerbitzuaren zabalkundea sare sozialen bidez izango denez, instgram kontu edota youtube-ren bidez alegia, ez dugu gasturik izango. Izan ere, gure langileak arituko dira honetan, hortaz haien soldataren barruan egongo da hedapenaren (marketinaren) kostua, hau da, haiek publizitaterako lanean inbertitzen duten denbora soldataren barnean egongo da eta gure enpresa merkatu kuota handituz joango da.

